



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko maiatzaren 29a

49. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langile diplomadunen lanbide karreraren sistema ezarri, eta finantzabiderako kreditu gehikuntza onesten duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Foru Legea, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 5. artikulua aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Foru Lege proposamena, Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (10. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza departamentua premiatzen da atzerriko hizkuntzako irakaskuntza ezartzeko plan bat presta dezan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten dio Nafarroako Gobernuari Osasun Departamentuak egiten duen Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroaren kudeaketa txarra dela-eta. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bi hilabeteko epean zerga iruzurraren aurkako plan berri bat taxutu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 6/2008 Foru Legea garatzen duen erregelamenduak jaso dezan legeak oinarri duen filosofia; alegia, publikoa dena ondare komunaren zati gisa erabiltzea. Hezkuntza Batzordeak bazter utzia (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, osasun garraioaren kudeaketa edo antolamendu eredu berriari heltzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (13. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza arloko prezioen behatoki publiko bat sor dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (13. or.).
- Adierazpen politikoa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere interesa adierazten du Eusko Jaurlaritzak Nafarroako Foru Komunitatearen errealitate instituzionala errespetatu dezan. Osoko Bilkurak berretsia (13. or.).
- Adierazpen politikoa, Saharako herriari elkartasuna eta babesa ematekoa. Osoko Bilkurak berretsia (14. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Gobernuaren denbora eta diru aldetiko aurreikuspenei buruzkoa, San Adriánen osasun etxe berri bat eraikitzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, itxaron zerrendei konponbidea emateko egin diren aparteko ordukin zerikusia duten zenbait daturi buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Gobernuak San Adriángo hiri antolamendurako plan berria behin betikoz onesteko behar den aginduzko txostena egitea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Gobernuaren denbora eta diru aldetiko aurreikuspenei buruzkoa, San Adriánen 0 eta 3 urte bitarteko ziklo bat abian jartzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, gazteen sexualitatearen gaineko laguntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nafarroan gizarte gaietako sektorean lan egiten duten pertsonen buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak izendatu behar duen Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kide bat izendatzea (22. or.).

I SAILA:**Planak, komunikazioak eta programak:**

- “Nafarroa 2012 Plana”, Nafarroako ekipamendu eta azpiegitura publikoen arloko inbertsioak 2008-2011 aldian. Osoko Bilkurak onetsia (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langile diplomadunen lanbide karreraren sistema ezarri, eta finantzabiderako kreditu gehikuntza onesten duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko maiatzaren 22an egindako Osoko Bilkuran, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langile diplomadunen lanbide karreraren sistema ezarri, eta finantzabiderako kreditu gehikuntza onesten duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 28a

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Foru Legea,
Osasunbidea-Nafarroako Osasun
Zerbitzuko osasun arloko langile
diplomadunen lanbide karreraren sistema ezarri, eta finantzabiderako
kreditu gehikuntza onesten duena**

ZIOEN AZALPENA

Urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeak, zeinak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko araubidea arautzen baitu, 34. artikuluan ezartzen du zein diren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak erabiliko dituen formulak bere langileen barne-igoerarako, eta d) letran aipatzen du Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorriko duela Parlamentura lanbide karreraren edo beste elementu batzuetan oinarritutako lansari-pizgarriak sortzeko.

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen eta azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legearen bidez, Osasun Departamentuaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko osasun arloko langile fakultatiboentzako lanbide karreraren sistema ezarri zen Nafarroako Foru Komunitatean. Lanbide

karreraren sistema hori abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuaren bidez garatu zen.

Estatuan, berriz, Osasun arloko lanbideen antolamenduari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legeak ezarri du osasun arloko profesionalen –unibertsitateko lizentziadunak nahiz diplomadunak– lanbide garapenerako sistema, hau da, osasun arloko profesional batek gai hauetan lortutako garapen-mailaren aitortza publiko, espres eta banakakoa: ezagupenak, laguntza, irakaskuntza eta ikerketa eginkizunetako esperientzia, bai eta zerbitzuak ematen dituzten erakundearen laguntza eta ikerketa helburuak betetzeari dagokiona ere.

Azaroaren 21eko 44/2003 Legeak bi aurreikuspen ditu lanbide garapenerako sistemaren ezarpenaren inguruan. Bata da osasun administrazioek zehaztuko dituztela lanbide garapenerako sistema aplikatzeko epeak eta aldiak, irizpide orokorra izanik ezarpeneko prozedurak legeak indarra hartu eta lau urteko epean abian egon beharko dutela. Bestea da lanbide garapenerako mailak aitortzeak lansariaren egituraren eta zenbatekoan ekar ditzakeen ondorioak dagokien sindikatuekin negoziatuko direla kasu bakoitzean, aplikatzekoak diren arautan xedatutakoaren arabera.

Unibertsitate diplomadunak diren osasun arloko langileentzat lanbide karrera baten eredia ezartzea helburu orokor baten barruko neurria da: osasun laguntzaren hobekuntza lortzea, oinarriko zenbait alderdiz baliatuz eta horiek garatuz, hala nola etengabeko prestakuntza kontuan hartzea kalitate teknikoa eta laguntzaren kalitatea hobetzen bakoitzak egindako ahaleginaren adierazgarri gisa, bideak irekitzea profesionalen osasun zerbitzuen zuzendaritzan eta kudeaketan parte-hartze handiagoa eta eraginkorragoa izan dezaten, motibazio eta pizgarriak sortzeko mekanismoak jartzea, aukera eman dezaten ahaleginak

modu egokian bideratzeko eta laguntzari dagokionez lortutako emaitzen aitortza egiteko.

Alderdi horiek garatzeko bideak dira profesionalei beraiei protagonismoa ematea lanbide karreraren eredia aplikatzea eta geroko garapena gauzatzea, eta sistema arautuak definitzea lanbide jarduera ebaluatzeko, aitortzeko eta saritzeko.

Osasun arloko langile diplomadunentzat lanbide karreraren sistema bat ezartzean aintzat hartu behar dira nahitaez, lansarietako ondorioei dagokionez, egun lansarien sistema osatzen duten kontzeptuak, zeinak ez baitira bat heldu gainerako osasun administrazioetan osasun arloko langile diplomadunentzat finkatutakoekin, Nafarroako Foru Komunitateak funtzio publikoaren arloan dituen eskumen historikoak direla eta. Ildo horretan, aintzat hartu behar da, nagusiki, graduari dagokion lansaria, Foru Komunitatean indarra duen araudion funtzionarioen karrera administratiboarekin lotutako kontzeptua baita, sistema gaur egun aldi baterako etenda badago ere.

Foru araudiak berezkoak dituen alderdiez gain, gainerako osasun administrazioetan osasun arloko langile diplomadunen lansari-maila orokorrari begiratuta, Nafarroako Foru Komunitatean langile horientzako lanbide karreraren sistema bat ezartzeak, beste administrazioetan ezarritakoaren antzekoa, bere lansari-sistema gaur egun osatzen duten kontzeptuak aldatu eta egokitu beharra eragingen du. Hori gertatu bitartean, sistemaren aplikazio iragankorra ezarri beharra dago, Foru Komunitateko administrazioaren zerbitzuko gainerako langileekin ez ezik gainerako osasun administrazioetako osasun arloko diplomadunak diren langileekin ere dagoen oreka hautsiko ez duten zenbatekoekin.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langile finko diplomadunei aplikatu beharreko lanbide karreraren sistema ezartzea.

2. artikulua. Aplikazio esparrua.

1. Foru lege honen bidez arauturiko lanbide karreraren sistema Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostu bat jabetzan duten langileei aplikatuko zaie, betiere zerbitzu horri atxikitako langileen berariazko araubideari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean aipatzen den osasun arloko diplomadunen estamentuan sartutako espezialitateetarako izendatuak badira.

2. Foru lege hau ez zaie aplikatuko kupoko eta eskualdeko langileei, ez eta udaletako osasun funtzionarioei ere, Foru Komunitateko administrazioa

toki osasunaren zerbitzuko funtzionario gisa esku-aldatuta ez badaude.

3. artikulua. Definizioa.

Lanbide karrera langileen motibazioarako eta osasun zerbitzuen hobekuntzarako lanabes bat da, eta profesionalek banaka aurrera egiteko duten eskubidearen adierazgarri, lanbidean izandako garapena aitortzen dielako, ezagupenei, laguntza, irakaskuntza eta ikerketa eginkizunetako esperientziari, eta zerbitzuak ematen dituzten erakundearen helburuak betetzeari dagokionez.

4. artikulua. Lanbide karreraren mailak.

1. Foru lege honen aplikazio esparruko langileen lanbide karreraren sistema lau ordainsari-mailatan ezartzen da.

2. Lanbide karrerako mailetan gora egiteko, profesionalak frogatu beharko ditu iraunaldiko urteei, lanbide jarduerari eta laguntza arloko jarduerari eta hobekuntza eta gaurkotze profesionalekoei dagozkien merezimenduak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboan lanbide karreraren sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legean ezarritako moduan.

3. Mailaz igotzeko bete beharrekoak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboan lanbide karreraren sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legean eta hura erregelamenduz garatzeko arauetan ezarritakoak izanen dira, foru lege honetan eta, halakorik bada, erregelamenduzko garapenerako arauetan ezarritako berezitasunekin.

5. artikulua. Lanbide karreraren ordainsariak.

1. Foru lege honetan arautzen den lanbide karrera berariazko osagarri bat emanez ordainduko da. Osagarri hori ordainsari osagarritzat joko da, urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 6. artikularen ondorioetarako. Foru lege horrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikiriko langileen berariazko araubidea arautzen du.

2. Lanbide karrerako osagarria hamalau hilekotan pagatuko da; horietako hamabi arruntak izanen dira, eta bi, apartekoak.

6. artikulua. Ebaluazio sistema.

1. Osasun arloko profesional diplomadun bakoitzaren laguntza-jardueraren ebaluazioa, helburu eta emaitzen gainekoa, urtero egingen da, aurreko ekitaldiari dagokionez.

2. Zuzendaritza eta kudeaketa, prestakuntza eta garapen teknikoko jardueren ebaluazioa, berriz, interesdunak eskatuta egingen da eta betiere

maila aldatzeko gainerako baldintzak betetzen baditu.

3. Ebaluazio prozedura Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboan lanbide karreraren sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legean eta hura erregelamenduz garatzeko arauetan ezarritakoa izanen da, foru lege honetan eta, halakorik bada, erregelamenduzko garapenerako arauetan ezarritako berezitasunekin.

7. artikulua. Ebaluazio batzordeak.

1. Erregelamendu bidez ezarriko dira beharrezkoak diren ebaluazio batzordeak, langileak atxikitzeko esparru funtzionalen arabera.

2. Ebaluazio Batzordeak paritarioak izanen dira eta zortzi kidez osatuak; kideetako lau Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak izendatuko ditu eta beste lauak esparru bakoitzeko osasun arloko diplomadunen artean izendatuko dira, erregelamenduz ezarritako arauekin bat.

3. Foru lege honetan eta hura erregelamenduz garatzeko arauetan aurrekusi gabe dagoen guztian, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboan lanbide karreraren sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legea erregelamenduz garatzeko araudian ezarritakoak arautuko ditu ebaluazio batzordeak.

8. artikulua. Akreditatzea.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, kasuan kasuko ebaluazio batzordeak eskaturik, osasun arloko diplomadun bakoitzak lanbide karreraren lortutako mailaren akreditatze formalak egiten du.

9. artikulua. Finantzabidea.

1. 3.100.000 euroko kreditu gehikuntza eman da, Nafarroako 2008ko aurrekontu orokorretako "Erizaintzako lanbide karrera" izeneko 540000-52000-1239-311102 kontusailari egotziko zaiona.

2. Kreditu gehikuntza hori aurrekontu indarduneko "Aurreko ekitaldietako superabitaren erabilera" izeneko 112000-11400-8700-000000 kontusailan izandako dirusarrera gehigarrien kargura finantzatuko da.

3. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 44. artikuluko 3. idatz-zatiarekin bat, foru lege honetan onetsitako osagarria aplikatzeko beharrezkoak diren aurrekontu mugimenduak ez dira aurrekontu aldaketatzat hartuko.

Lehenbiziko xedapen gehigarria. Lanbide karrerako osagarriaren zenbatekoak.

1. Osasun arloko diplomadunak diren langileen lanbide karrerako osagarriak zenbateko hauek izanen ditu urtean:

- I. maila: 1.800 euro.
- II. maila: 3.600 euro.
- III. maila: 5.400 euro.
- IV. maila: 7.200 euro.

2. Aurreko atalean aipatutako zenbatekoak urtero eguneratuko dira, Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeetan Nafarroako administrazio publikoan zerbitzuko langileen lansarietarako ezartzen diren igoera portzentajearen oinarrituta.

Bigarren xedapen gehigarria. Aldi baterako emandako zerbitzuak.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera bere aplikazio esparruko zentro eta zerbitzuetan aldi baterako kontratuaren bidez emandako zerbitzuak foru lege hau erregelamenduz garatzeko araudietan finkatzen diren arauak jarraikiz ebaluatuko dira edo, halakorik ezean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboan lanbide karreraren sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legea erregelamenduz garatzeko araudian ezarritako arauak jarraikiz.

Hirugarren xedapen gehigarria. Egoera bereziak.

1. Foru lege honetan araututako lanbide karreraren sistema bere aplikazio esparruko langileei aplikatuko zaie Osasun Departamentuan eta haren erakunde autonomoetan zuzendaritza, zuzendariordetza, burutza postuetan edo zuzendaritza arloko beste edozein ardura kargutan ari diren bitartean. Kasu horretan, eta foru lege honek erregelamenduzko garapenik ez duen guztian, aplikatzekoak izanen dira apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen erregelamenduzko garapenerako araudian ezarritako ebaluazio arauak.

2. Foru lege honetan araututako lanbide karreraren sistema bere aplikazio esparruko langileei aplikatuko zaie langileen ordezkari organoetako kide diren bitartean, legez ezarritako ordu kredituaz lanaldi osoan baliatzen direnean. Kasu horretan, mailaz igotzeko, iraunaldiak betetzeaz gain, prestakuntza, ikerketa eta garapen teknikoko jarduerari buruzko baremoko ataleko betebeharrak baizik ez zaizkio eskatu eta ebaluatuko, foru lege honen erregelamenduzko garapenik ez duen guztian, apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen errege-

lamenduzko garapenerako araudian ezarritako arauekin bat.

Laugarren xedapen gehigarria. Langile fakultatiboen lanbide karrerako mailak parekatzea.

Foru lege honek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboen lanbide karreraren sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen aurreikuspenetara bidaltzen duenean, lanbide karreraren mailen baldintzei eta ezaugarriei dagokienez, foru lege honetan araututako lanbide karrerako I. maila fakultatiboen lanbide karrerako II. mailaren parekoa dela ulertuko da, eta hortik aurrerakoak modu berean.

Bosgarren xedapen gehigarria. Lanbide karrerako maila aitortua Osasun Sistema Nazionaletik etorritako langileei aplikatzea.

Osasun Sistema Nazionaletik etorritako langileei lanbide karrerako osagarria jasotzeko eskubidea aitortzen zaie, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan zerbitzuak ematen dituzten bitartean, foru lege honetan ezarritako zenbatekoan. Era berean, mailaz igotzeko baldintzak foru lege honetan ezarritakoak izanen dira.

Seigarren xedapen gehigarria. Foru lege honen aplikazioa Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako osasun arloko langile diplomadunei.

Foru lege honetan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langile diplomadunentzat ezarritako lanbide karreraren sistema aplikatzekoa izanen zaie, halaber, Osasun Departamentuko eta hari atxikitako erakunde autonomoetako osasun arloko langile diplomadunei.

Lehenbiziko xedapen iragankorra. Osasun arloko langile diplomadunei lanbide karrerako hasierako maila ematea.

1. Osasun arloko langile finko diplomadunei dagokien hasierako maila emateko, Europar Batasuneko kide diren estatuetako sistema publikoetan jabetzako lanpostuan emandako zerbitzu urteak kontuan hartuko dira, izendapena foru lege honen 2. artikuluan aipatuetakoa baldin bada. Eskala honi jarraituko zaio:

a) I. maila emanen zaie 5 urte zerbitzuan egin badituzte.

b) II. maila emanen zaie 14 urte zerbitzuan egin badituzte.

c) III. maila emanen zaie 22 urte zerbitzuan egin badituzte.

d) IV. maila emanen zaie 29 urte zerbitzuan egin badituzte.

2. Jabetzako lanpostu batean zerbitzuan ematen diren urteak hasierako maila emateko behar direnak baino gehiago izanez gero, kontuan hartuko dira etorkizunean, foru lege honetan ezarritako prozedurari jarraikiz mailaz igotzeko.

Bigarren xedapen iragankorra. Kupoko eta eskualdeko langileak sartzeari.

Oinarritzko osasun laguntzako taldeetako edo laguntza espezializatuko zerbitzu hierarkizatueta-ko lanpostuak lortzen dituzten kupoko eta eskualdeko langileei, horietan lanaldi orokorra egiten badute, lanbide karrerako dagokien maila emanen zaie, osasun sistema publikoetan jabetzan emandako zerbitzu urteak kontuan hartuta, baldin eta foru lege honen 2. artikuluan adierazitako izendapenetako batekin eman badira zerbitzuok, lehenbiziko xedapen iragankorrean ezarritako eskalaren arabera.

Hirugarren xedapen iragankorra. Lanbide karrerako osagarriaren zenbatekoen izaera iragankorra ezartzea.

Lanbide karrerako osagarriaren zenbatekoak, foru lege honen lehen xedapen gehigarrian osasun arloko langile diplomadunentzat ezarri direnak, izaera iragankorrarekin aplikatuko dira, egun indarra duten lansari kontzeptuen zenbatekoak, foru lege honetan araututako lanbide karrerako sistemara egokitzeko, ondorio guztiekin aldatu bitartean.

Laugarren xedapen iragankorra. Foru lege honetan osasun arloko langile diplomadunentzat arautu den lanbide karrerako sistema pixkanaka ezartzea.

Osasun arloko langile finko diplomadunentzat foru lege honetan ezarri den lanbide karreraren sistema pixkanaka ezartzen joanen da hiru urtetan, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera. Hori dela eta, foru lege honen lehendabiziko xedapen gehigarrian lanbide karrerako osagarriko finkatutako zenbatekoen portzentaje hauek egingen ditu osagarriak urtez urte:

– 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera, 100eko 40.

– 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera, 100eko 70.

– 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera, 100eko 100.

Azken xedapenetako lehenbizikoa. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Azken xedapenetako bigarrena. Foru lege hau garatu eta betearazteko ahalmena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko maiatzaren 22an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 28a

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioko 47. artikulua aitortzen du espainiar guztiek etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea dutela, eta administrazio publikoei agintzen die beren eskumenak eta ahalmenak erabil ditzaten eskubide hori eragingarria izan dadin.

Horrela, Nafarroako Foru Komunitatea aurreratuenetakoa da etxebizitza babestuenak eraikitzeari dagokionez, eta aitzindaria izan da etxebizitzaren alorreko legegintzan. Bai Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legea bai eta Lurralde antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea, zeinak proposamen berritzaileak ekarri baitzituzten eta erreferentzia izan baitira beste autonomia erkidego batzuentzat, tresna baliagarriak eta eraginkorrak izan dira.

Hala ere, gaur egun, etxebizitza Nafarroako gizartearen kezka nagusietako bat bihurtu da,

errenta mugatuenerako familia-unitateek zailtasun ekonomikoak baitituzte etxebizitza libreko merkatuak eskuratzeko.

Horrela, aurrera egiten eta lanean jarraitu behar da baldintzak, neurriak eta prozedurak ezartzeko eta, horien bidez, modua egon dadin herritar guztiek etxebizitza batez gozatzeko duten eskubidea edukiz erabat betetzeko, bai eta modua ere arlo honetan eskubide subjektiboa aitortzeko oinarriak ezartzeko.

Lehenengo artikulua.

Foru lege honen xedea da, Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legean neurri berriak sartuz, etxebizitza duin eta egoki batez gozatzeko eskubidea ziurtatzen laguntzea, Espainiako Konstituzioko 47. artikuluan ezarritakoaren arabera hain zuzen.

Xedapen gehigarri bakarra.

Nafarroako Gobernuak, bilkuraldi honetan, Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko du Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektu bat, non eskubide hori hobeki ziurtatzeko egokiak diren neurriak jasoko baitira eta, besteak beste, etxebizitza erosteko aurrezki-kontuei legeak ematen dien trataera berrikusiko eta hobetuko baita. Behin onetsita, legeak izen hau hartuko du: Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko Legea

Azken xedapena.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Legea, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 5. artikulua aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko maiatzaren 22an egindako Osoko Bilkuran, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 5. artikulua aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 28a

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Legea, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 5. artikulua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak, bere printzipio gidarien artean, honakoak ezartzen ditu: osasunaren kontzeptu integrala eta prestazioen efizientzia soziala. Hala ere, 5. artikuluan, herritarrek osasun zerbitzuak direla-eta dauzkaten eskubideen zerrenda labur bat ageri da.

Egungo egoeran, beharrezkoa da osasunari buruzko araudi orokor hori gizarateak egun eskatzen dituen prestazioen arabera egokitzea. Hala ere, herritarren eskubideen zerrenda gaurkotu beharra dago, administrazioak osasun publikoaren arloan eta, kasua bada, itunpeko osasunaren arloan, eskaini behar dituen kasuan kasuko prestazioekin koherenteak izateko.

Gainera, artikulua horren izenburua, "Herritarren eskubideak", gizarateak gaur egun eskatzen dituen prestazioen arabera gaurkotu eta egokitu beharra dago.

Maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legea –laguntza-informazioari, informazio publikoari, gaixoaren, haren senideen eta hurbilekoen intimitateari eta sendagilea hautatzeari eta tratamendua dela-eta gaixoak adostasuna eta bere borondatea adierazteari dagozkien eskubide pertsonalak arautzen ditu– ere kontuan hartu beharra dago administrazioak osasunaren arloan eskaini beharreko prestazioen katalogoa gaurkotzerakoan.

Bestalde, otsailaren 21eko 71/1991 Foru Dekretuak Nafarroako Foru Komunitateko osasun laguntza ororenganatzea ezarri zuen. Osasuna ororenganatzearen oinarriko printzipio hori gaur-

kotu beharrezkoa da, bai ikuspuntu subjektibotik, bai ikuspuntu objektibotik ere. Hau da, osasuna ororenganatzea, ongizatearen estatu batean, ezinbestez interpretatu behar da ez soilik herritar guztiei dagokien neurrian, baizik eta herritar guztiek legez exiji ditzaketan eta gizarateak eman behar dituen prestazio guztiak hartzearen ikuspuntutik ere. Osasuna salbuespenik onartzen ez duen eskubide bat da ongizatearen gizaratean.

Osasun prestazioei buruzko eskubideen katalogoa gaurkotu beharra dago horrenbestez, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 5. artikuluari testu berria emanez, betiere kontuan hartuz maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legean –gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituen ezarritako guztia eta, besteak beste, legez ezarritako kasuetan haurdunaldiaren borondatezko eteteari dagokion osasun prestazioa ere bertan sartuz.

Eginiko azterlanetan eta estatistiketan eta emandako prestazioei buruzko datuetan agerian geratzen den eskari sozialak justifikatzen du legez ezarritako kasuetan haurdunaldiaren etetea osasun publikoan egiteko beharra.

Artikulu bakarra. Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 5. artikuluko hasierako paragrafoa eta 5. eta 14. idatz-zatiak aldatzen dira. Hona haien testu berria:

"Foru erkidegoko osasun sistema dela eta, Nafarroan egoitza duten herritarrek ondoko eskubideen titularrak izan eta haietaz baliatu ahalko dira:

5. Gaixoak eta bere senideek eta hurbilekoek prozesuari buruzko informazio osoa eta jarraitua edukitzeko eskubidea, horren barne dela diagnostika, pronostikoa eta tratamendurako aukerak; hori guztia maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legeko 2., 3. eta 4. artikuluetan ezarritako terminoetan.

14. Gaixotasun fisiko nahiz psikiko guztien osasun estaldura orokorra edukitzeko eskubidea, legez ezarritakoaren barruan. Gaixo batek, eskubideen subjektu gisa, aitortuak ditu Nafarroako osasun publikoaren barruan eta itunpeko osasunaren barruan, besteak beste, haurdunaldiaren borondatezko etetea, betiere legez aurreikusitako baldintzetan. Foru erkidegoko osasun administrazioak prestazio osagarriak ezarri ahalko ditu, eta haiek gauzatuko dira programazio espresa eta

berariazko aurrekontu-zuzkidura egin ondoren. Prestazio horien helburua izanen da berariazko arrisku-faktoreak dituzten gizarte-taldeak babestea, lan osasunari arreta berezia eskainiz”

Azken xedapen bakarra. Erregelamendu bidezko garapena.

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuko titularrari behar diren

ebazpenak eman ditzan, abian jartzeko, profesionalen kontzientzia eragozpen pertsonala zorrotz errespetatuz, behar adinako egitura profesional bat, duintasunez emanen duena haurdunaldiaren borondatezko eteteari berez dagokion osasun zerbitzuaren prestazioa, legez ezarritako baldintzetan, Nafarroako osasun sistema publikoaren barruan.

Foru Lege proposamena, Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2008ko maiatzaren 22an egingadako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako Foru Lege proposamena, Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

Proposamen hori 2008ko apirilaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 28a

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza departamentua premiatzen da atzerriko hizkuntzazko irakaskuntza ezartzeko plan bat presta dezan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2008ko maiatzaren 15ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza departamentua premiatzen da atzerriko hizkuntzazko irakaskuntza ezartzeko plan bat presta dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza departamentua premiatzen da atzerriko hizkuntzazko irakaskuntza ezartzeko plan bat presta dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du atzerriko hizkuntzazko

irakaskuntza ezartzeko plan bat presta dezan; planean honakoak jaso beharko dira:

a. Atzerriko hizkuntzazko irakasleentzako prestakuntza plana: birziklatzeak, ikastaro trinkoak, irakastorduak kentzea eta atzerrian prestakuntza trinkoa ematea. Urtean gutxienez ere 30 irakasle prestatzea.

b. Unibertsitatearekin hitzarmenak sinatzea, Irakasleen Eskolako ikasleek, unibertsitate-ikasketak amaitzean, atzerriko hizkuntzan irakaskuntza emateko gauza izan daitezen.

c. Helburu gisa ezartzea legegintzaldiaren amaieran gutxi gorabehera 50 ikastetxetan egon dadila eredu hori ezarrita.

d. Lehentasunez jarduteko ikastetxeak izatea matrikula kopurua berreskuratzeko eta familientzat interesgarriak gertatzeko bultzada behar duten ikastetxeak.

e. Esperientzia zabaltzea lanbide-heziketako ikastetxeetara.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten dio Nafarroako Gobernuari Osasun Departamentuak egiten duen Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroaren kudeaketa txarra dela-eta.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko maiatzaren 22an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten dio Nafarroako Gobernuari Osasun Departamentuak egiten duen Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroaren kudeaketa txarra dela-eta."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 28a

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten dio Nafarroako Gobernuari Osasun Departamentuak egiten duen Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroaren kudeaketa txarra dela-eta

1. Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten dio Nafarroako Gobernuari, Osasun Depar-

tamentuak Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroa gaizki kudeatzearen ondorioz, zenbait arazo sortzen ari direlako.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irailaren 16ko 1088/2005 Errege Dekretua bete dezan, bai eta 9001-2000 UNE-EN-ISO araua eta Transfusioak Kreditatzeko Batzordeak agindutakoa ere.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bi hilabeteko epean zerga iruzurraren aurkako plan berri bat taxutu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko maiatzaren 22an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bi hilabeteko epean zerga iruzurraren aurkako plan berri bat taxutu dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 28a

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bi hilabeteko epean zerga iruzurraren aurkako plan berri bat taxutu dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zerga iruzurraren kontrako plan berri bat taxu dezan bi hilabeteko epean; plan berri horretako jarduketa ildo estrategikoen bidez helburu handinahiak ezarriko dira, iruzurrezko portaeak desagerrarazteko aurrerabidezko proposamenak egiten dira, tributuen arloko betebeharrak gizarte-dualtasuna ekidinen da eta areagotu egiten dira beharrezkoak diren giza baliabideak eta materialak.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 6/2008 Foru Legea garatzen duen erregelamenduak jaso dezan legeak oinarri duen filosofia; alegia, publikoa dena ondare komunaren zati gisa erabiltzea.

HEZKUNTZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 6/2008 Foru Legea garatzen duen erregelamenduak jaso dezan legeak oinarri duen filosofia; alegia, publikoa dena ondare komunaren zati gisa erabiltzea."

Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak 2008ko maiatzaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko maiatzaren 6ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, osasun garraioaren kudeaketa edo antolamendu eredu berriari heltzeko.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, osasun garraioaren kudeaketa edo antolamendu eredu berriari heltzeko."

Legebiltzarrak 2008ko maiatzaren 22an egin-

dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko apirilaren 18ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 28a

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza arloko prezioen behatoki publiko bat sor dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza arloko prezioen behatoki publiko bat sor dezan"

Legebiltzarrak 2008ko maiatzaren 22an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 28a

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen politikoa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere interesa adierazten du Eusko Jaurlaritzak Nafarroako Foru Komunitatearen errealitate instituzionala errespetatzen.

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko maiatzaren 23an egindako bileran, berretsi zuen Eledunen Batzarrak 2008ko maiatzaren 19an onetsitako adierazpen politikoa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere interesa adierazten du Eusko Jaurlaritzak Nafarroako Foru Komunitatearen errealitate instituzionala errespetatzen.

"1. Nafarroako Parlamentuak, nafar herriaren egiazko ordezkaria den aldetik, Foru Hobetzearen 11. artikuluan ezartzen den moduan, bere interesa adierazten du Eusko Jaurlaritzak Nafarroako Foru

Komunitatearen errealitate instituzionala errespetatzen. Errealitate hori, hain zuzen ere, hauteskunde berretsia izan da, herritarren gehiengoak babesa eman baitie egungo egitura- ketaren alde dauden alderdi politikoei.

2. Nafarroako Parlamentuak bere interesa adierazten du Nafarroako Gobernuak bere esku dituen zuzenbidezko tresna guztiak baliatuta defenda dezan erkidegoaren egungo errealitate instituzionala, hori delako herritarren gehiengoaren borondatea, hautestontzietan askatasunez eta demokratikoki adierazia.

3. Nafarroako Parlamentuak berriz dio harreman emankor eta adeitsua izan nahi duela Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeekin, bi erkidego-etako herritarrek dituzten harremanen pare. Harreman hori soilik eraiki ahal izanen da nafarren

gehiengoaren borondate politikoa errespetatuz eta egungo egituraketa inolako itzulingururik gabe onartuz.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 28a

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen politikoa, Saharako herriari elkartasuna eta babesa ematekoa.

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko maiatzaren 23an egindako bileran, berretsi zuen Eledunen Batzarrak 2008ko maiatzaren 19an onetsitako adierazpen politikoa, Saharako herriari elkartasuna eta babesa ematekoa.

“1. Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoa aldarrikatu zenetik 32 urte betetzean, Saharar herria zoriondu nahi dugu, pairatzen ari den bidegabekeriaren aurrean erakutsitako erresistentzia-ahalmenagatik eta hala erbestean nola okupazioan bizi-baldintza hobekak lortze aldera eginiko ahalegin etengabeagatik.

2. Saharar herriarekiko elkartasunaren erakusgarri, Nafarroako Parlamentuak agurtu egiten ditu erakundeak –publikoak nahiz pribatuak–, alderdi politikoak eta gizarte-mugimenduak egiten ari diren elkartasun eta lankidetzak ekintza gero eta ugariagoak, zeinek bat egin baitute Saharar herriarekiko laguntza koordinatze aldera Espainian nahiz beste herrialde batzuetan, azkena Erroman, 2007ko urrian, eginiko konferentzia guztietan.

3. Atsekabez egiaztatzen dugu Marokok Sahara Mendebaldean okupatutako lurraldeetan errepresio bortitz eta bidegabeak darraielatzen marokarren tesien aurkako agerraldi ororen kontra. Halere, ezin konta ahala gizonek, emakumek, zaharrek, mutikok eta neskek pairatzen dituzten laidoak ez dira oztopo erresistentzia herritar eta baketsuak egunez egun areagotu ditzan bere jarduerak bai Sahara mendebaldeko geografia osoan, bai sahararrak dauden leku orotan.

4. Gure elkartasuna helarazi nahi diegu okupazioaren eta bidegabekeriaren aurka daudela erakuste aldera bere osotasun pertsonala, ondasunak eta are bizitza ere egunez egun arriskuan jartzen dituzten pertsona guztiei. Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseilua premiatzen dugu argitara eman ditzan Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi-komisarioaren Ikerketa Batzordeak

egin dituen txosten guztiak, eta lehenbailehen eta modu eraginkorrez esku har dezan lurralde okupatutako sahararren oinarrizko eskubideak eta bizitza babesteko. Orobat eskatzen diogu Nazio Batuen idazkari nagusiari ugaritu ditzan lurralde okupatuetan giza eskubideak defendatze aldera eta gizarte zibila babeste aldera MINURSOk dituen eskumenak.

5. Europar Batasunari berriro eskatzen diogu nazioarteko zuzenbidea errespetatu dezan Marokoko Erresumarekin sina ditzakeen hitzarmenetan, halako moduz non hitzarmen horiek ez dieten eragin ez Sahara Mendebaldeko lurraldeari eta urei, ez saharar herriaren eskubide politiko eta ekonomikoei.

6. Saharako Ilargierdi Gorriak, nazioarteko giza laguntzako agentziek eta lurralde okupatuetan bertan lan egiten duten GKEk nahiz elkarteek egiaztatzen dute oinarrizko elikagaien hornikuntza-krisi larrian daudela Tindufeko kanpalekuetan errefuxiatuak sahararrak. Horrenbestez, nahiz eta pozten garen Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak laguntza humanitarioa areagotu duelako eta orain dela zenbait hilabete Elikaduraren 2008ko Mundu Programa babesteko hitzarmen bat sinatu duelako saharar herriarentzako, dei egiten diegu Elikaduraren Mundu Programari eta Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Goi-komisarioari, hala nola Europako gobernu eta erakundeei, nor bere erantzukizuna bere gain har dezan eta, presako ekintza tinko baten bidez, ekin dezaten bereziki milaka mutiko eta neska, emakume haurdun eta zahar nahiz gaixo kaltetuko lituzkeen giza-hondamendia. Berresten dugu prest gaudela, adostasunetik eta lankidetzatik abiatuta, Espainiako Gobernuari laguntzeko, Sahara Mendebaldeko gatazka politikoari konponbide zuzen eta behin betikoa emate aldera modu eraginkorren egin ditzakeen ahaleginetan, ondokoak oinarri: nazioarteko zuzenbidea (saharar gatazka deskolo-

nizazio prozesu gisa hartzea, alegia) eta saharar herriaren eskubide alienaezina bere etorkizuna askatasunez erabakitzeko. Prest gaude, halaber,

erakunde garen aldetik laguntzen jarraitzeko saharar herriarekiko elkartasunaren eta lankidetzaren esparruetan lan egiten duten erakundeei.”

F saila:
GALDERAK

Galdera, Gobernuaren denbora eta diru aldetiko aurreikuspenei buruzkoa, San Adriánen osasun etxe berri bat eraikitzeko.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Gobernuaren denbora eta diru aldetiko aurreikuspenei buruzkoa, San Adriánen osasun etxe berri bat eraikitzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 8ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parla-

mentari Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du jakiteko zein diren Gobernuaren denbora eta diru aldetiko aurreikuspenak San Adriánen osasun etxe berri bat eraikitzeko. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun Departamentuaren asmoa da San Adriánen osasun etxe berria eraikitzea. Horretarako, departamentuak ekitaldi honetako lehen hiru hilekoan lehiaketarako deialdia egingen du, proiektu arkitektonikoa egingen duen taldea kontratatzeko. Asmoa da eraikuntza lanak 2010erako amaitzea, eta 2.560.000 euro inguruko kostua izatea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, itxaron zerrendei konponbidea emateko egin diren aparteko orduekin zerikusia duten zenbait daturi buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du itxaron zerrendei konponbidea emateko egin diren aparteko orduekin zerikusia duten zenbait daturi buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 8ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du itxaron zerrendei konponbidea emateko egin diren aparteko orduei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Egindako orduak:

2006. urtean	31.390
2007. urtean	41.971
Guztira.....	73.361

2.- Jarduera berezien kostua:

ZENTROA	2006	2007	2006 + 2007
Nafarroako Ospitalea	224.459,00 €	325.373,00 €	549.832,00 €
Bideko Ama Birjina Ospitalea	482.616,00 €	486.707,00 €	969.323,00 €
Ubarmin Klinika	418.782,00 €	699.128,00 €	1.117.910,00 €
Tuterako Ospitalea	137.141,00 €	291.112,00 €	428.253,00 €
Lizarrako Ospitalea	55.380,00 €	40.732,00 €	96.112,00 €
Anbulatorioak	209.312,00 €	465.398,00 €	474.710,00 €
GUZTIRA	1.527.690,00 €	2.308.450,00 €	3.836.140,00 €

3.- BFE kontratu baten kostua urtebeterako: 39.118,94 euro.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Gobernuak San Adriángo hiri antolamendurako plan berria behin betikoz onesteko behar den aginduzko txostena egitea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Gobernuak San Adriángo hiri antolamendurako plan berria behin betikoz onesteko behar den aginduzko txostena egitea eragotzi duten arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 8ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du gobernua San Adriángo hiri antolamendurako plan berria behin betikoz onesteko behar den aginduzko txostena egitea eragotzi duten arrazoei buruz. Hona Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Egokia da aurretik zerbait argitzea; izan ere, galderan aipatzen den txostena ez da Plan Zuzendaria behin betikoz onesteko derrigorrezko txostena, baizik eta 35/2002 Foru Legeko 70.4 artikuluan aurreikusitako txostena; hau da, udalak behin-behineko onespina eman aurreko txostena, non Nafarroako Gobernuko departamentuetako gogoeta sektorialak bateratzen diren. Aipaturiko artikulua horrekin bat, Nafarroako Gobernuko txosten orokor hori ezin da eman ez badira jaso beharrezkoak diren txosten guztiak. Alabaina, txosten hori igortzeko legezko epea bi hilabetekoa da espedientea Erregistroan sartzen denetik, eta epe hori igarota, emantzat joko da. Lurraldearen Antolamendu Zerbitzuak ere txosten orokorra egin dezake (neurri batean orokorra), departamentuetako txosten guztiak jaso gabe, baina ondoren txosten sektorialak heltzen badira hartan aurreikusi ez diren determinazio lotesleak ager daitezke, eta kasu batzuetan atzera edo korapila ditzakete hirigintzako udal planaren izapideak. Kasu honetan agiri guztiak izan arte itxarotea erabaki dugu.

Hori argituta, jakinarazten da udalak hasieran onartutako plana jasotzen zuen espedientea 2007ko martxoan sartu zela departamentu honetan, eta txostena atzeratu duten arrazoiak nagusiki bi hauek izan direla:

1. Oraindik ez dira jaso txosten sektorial guztiak –plana aztertu ostean, erabaki zen beharrezkoa zela horiek eskatzea–. Ondoko hauenak izan ziren:

– Herri Lan Departamentua.

– Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia. Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzua.

– Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusia. Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua. Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzua. Ur Zerbitzua.

– Kultura eta Turismo Departamentua. Vianako Printzea Erakundea.

– Osasunbidea.

– Hezkuntza Departamentua.

– Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua. Etxebizitza Zerbitzua.

– Ebroko Konfederazio Hidrografikoa.

Orain arte, honako txosten hauek jaso dira Planean atalean:

– Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzua.

– Etxebizitza Zerbitzua.

– Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzua.

– Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzua. Habitaten atala.

Txosten horiek udalari igorri zitzaizkion aurretik 2008ko urtarrilaren 29an, horien berri izan zezan.

2. Udalak bidalitako txostena osatu gabe dago, izan ere, Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzuak jakinarazi duenez, ez dauka ingurumenaren gaineko eraginaren azterlana, eta hori derrigorrezkoa da ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko 4/2005 Foru Legearen arabera. Lurraldearen Antolamendu Zerbitzuak irregularitasun horren berri eman dio udalari, hirigintzako udal plana izapidezeko behar den dokumentazioa osatze aldera.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

Galdera, Gobernuaren denbora eta diru aldetiko aurreikuspenei buruzkoa, San Adriánen 0 eta 3 urte bitarteko ziklo bat abian jartzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Gobernuaren denbora eta diru aldetiko aurreikuspenei buruzkoa, San Adriánen 0 eta 3 urte bitarteko ziklo bat abian jartzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 8ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Gaur egun badago San Adriánen haur hezkuntzako 0tik 3 urtera bitarteko zentro bat, "Guardería Santas Reliquias" izenekoa. Zentro horrek 5 unitate ditu eta Gizarte Ongizate Departamentuak Udalarari transferitu zion 1987an, apirilaren 24ko 97/1987 Foru Dekretuaren bidez.

San Adriángo Udala harremanetan jarri zen Hezkuntza Departamentuarekin, egungo zentroa hartuko zuen haur eskola bat eraikitzeke, araudi indarduna beteko zuena –28/2007 Foru Dekretua–, eta, era berean, herriaren eskaera handitzeke aurreikuspenei erantzunen ziena.

Urtarrilaren 14an, Obra eta Mantenimendu Zerbitzuak eskatu zion haur hezkuntzako lehen zikloko atalari txosten bat egin zezan, San Adriánen haur hezkuntzako lehen zikloko eskaerari erantzuteke beharrezkoa zen plangintzari buruz.

Harremanetan egon ondoren, eta behin ziurtatu ondoren hala aipaturiko atalean ageri ziren datuak, nola udalak urtarrilaren 29an emandako datu osagarriak, Departamentuan bilera bat egin zen udalaren ordezkariekin, eta erabaki zen zentro berriak 10 unitateko edukiera izanen zuela, 12 unitatera handitzeko aukerarekin.

Ondoren, otsailaren 1ean, udalak dirulaguntza jasotzeko eskabidea bidali zuen, haur eskola berria eraikitzeke.

Obren Atalak orubea bisitatu du eta ondokoei buruzko datuak eman ditu: azalera erabilgarriak, azalera eraikiak eta beharrezkoak diren orientazioak, udala has dadin proiektuaren prestaketa kontratatzeke espedientearekin.

Otik 3 urtera bitarteko zentroak udalek eraikitzen dituzte. Hezkuntza Departamentuak diruz laguntzen ditu zentro horien eraikuntza lanak, betiere zentro horiek dirulaguntzen deialdi baten bitartez ezarritako baldintzak betetzen badituzte. %65eko dirulaguntza ematen da, onetsitako moduluen arabera. Lanak egiteko epeak udalaren erritmo ekonomikoaren arabera izanen dira.

Bestalde, zentro berria abian jarri baino lehen, Hezkuntza Departamentuak diruz lagundu ahal izanen du instalazio berrien oinarritzko ekipamendua, %95erainoko dirulaguntzak emanez.

Iruñean, 2008ko otsailaren 28an.

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, gazteen sexualitatearen gaineko laguntzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du gazteen sexualitatearen gaineko laguntzari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 4ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du gazteen sexualitatearen arloko laguntzari buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du eta idatzizko erantzuna eskatu du, gazteen sexualitatearen arloko laguntzari buruz.

Gai horri dagokionez, adierazi behar dugu zenbait ikuspuntutatik hel dakioken gaia dela, eta hori horrela izanik, dagoeneko badira gaia lantzen ari diren hainbat departamentu, eta bakoitzak bere ikuspuntu sektorialetik egiten du.

Ildo horretatik, nabarmentzekoa da Nafarroako Osasun Departamentuak diruz lagundu dituela Nafarroako Gazte Kontseiluak sexualitatearen eta gazteriaren alorretan egin dituen zenbait programa:

Zehazki, 2007. urtean, Kontseiluak ondoko dirulaguntzak jaso zituen:

- 11.257 euroko dirulaguntza jaso zuen "Con mucho gusto-Gozamenez" programak, sexualitateari eta gazteriari buruzkoak.

- Guztira 33.469 euro jaso zituen GIB-HIESaren infekzioaren aurrean osasuna sustatzeko programak.

Bestalde, hezkuntzari dagokionez, gai hori lantzen da hala derrigorrezko bigarren hezkuntzarako curriculumean –martxoaren 19ko 25/2007 Foru Dekretuan onetsita geratu zen–, nola haur eta lehen hezkuntzarako onartutako curriculumetan.

Gainera, Hezkuntza Departamentuak hezkuntza sexual eta afektiboari buruzko mintegi zehatzak sartzen ditu ikasturte bakoitzean irakasleak prestatzeko planean.

Hona 2007-2008 ikasturte honetarako antolatutakoak:

- "Educación sexual y afectiva en Educación Infantil, Primaria y Secundaria" izeneko mintegia.

- "Proyecto Relaciona. Tratamiento de la sexualidad y el amor en la escuela para prevenir la violencia" izenekoak, ikastetxean egiteko mintegia.

- "Educación en igualdad como prevención de la violencia" izenekoak, bigarren hezkuntzarako prestatua eta ikastetxean egiteko.

Aipatutakoa kontuan hartuta, Nafarroako Gazteriaren Institutuak –duela gutxi eratutako erakunde autonomoa da, departamentu honen mende dagoena eta helburutzat zeharkako ikuspuntu batetik gazteriaren alorreko politikak lantzea duena– aurreikusita dauka departamentuen arteko organo bat eratzea, horren bidez departamentuen arteko lankidetzak gauzatzeko. Organo horren helburua ondoko hau izanen litzateke: gazteriaren politika integrala egitea, gazteei beren garapenerako aukera gehiago eskaintzeko. Ikuspuntu horretatik landuko diren gaien artean daude bizi-aztura osasungarriak, eta beraz, sexuari buruzko informazioa eta hezkuntza ere bai.

Iruñean, 2008ko otsailaren 21ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilaria: María Isabel Garcia Malo

Galdera, Nafarroan gizarte gaietako sektorean lan egiten duten pertsonen buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroan gizarte gaietako sektorean lan egiten duten pertsonen buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 4ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroan gizarte gaietako sektorean lan egiten duten pertsonen buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren erantzuna:

Egindako galderari erantzuteko, gizarte gaietako sistema publikoan diharduten langileei buruzko informazioa erantsi dugu, langiletzat hartuz zuzenean administrazio publiko baten mende daudenak, nahiz ekimen pribatuko erakundeek kontratatutakoak –entitate horiek zeharka kudeatzen dituzte izaera publikoko zerbitzuak, kontratazio publikoen bidez–.

Horri dagokionez, hasteko aipatu behar da gaur egun 666 pertsona daudela lanean Departamentu honetan dagoen Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusian. Langile horietatik 592 Nafarroako Mendekotasun

Agentziari dagozkio, bertan sarturik bai haren bulego nagusiak bai haren mende dauden zentroak. Gainerakoak zuzenean Zuzendaritza Nagusiarri atxikita daude.

Aipaturiko kopuru horri beste 36 pertsona gehitu behar zaizkio, Familiaren, Haurraren eta Kontsumoaren Zuzendaritza Nagusian dihardutenak (familia sustatzeko zerbitzuetan eta haurrak eta nerabeak sustatzeko, laguntzeko eta babesteko zerbitzuetan), eta baita Nafarroako Berdintasunerako Institutuan diharduten beste 13 pertsona ere.

Bestalde, adierazi dugunez, kopuru horiek osatu behar dira sektorean diharduten ekimen pribatuko entitateen langileen kopuruekin. Entitate horiek izaera publikoko zerbitzuak kudeatzen dituzte kontratuen bidez. Aipaturiko organoek sinatutako kontratuen arabera, 1465 pertsona daude entitate horietan lanean (kopuru hori lanaldi osoari dagokio, kontratu ezberdinetan eskatutako gutxienekin bat).

Azkenik, udal titulartasuna duten oinarrizko gizarte zerbitzuei dagokienez, esan behar da horietan 684 profesional daudela lanean. Langile horietatik 600 aipaturiko zerbitzuen mende daude, eta gainerakoak ekimen pribatuko entitateetan daude kontratatutak.

Datu horiek, galderan aipatutakoarekin bat, Nafarroako biztanleria aktiboarekin erlazionatu beharko liriateke, 2007ko azken hiruhilekoan 303.500 pertsonakoa zena.

Iruñean, 2008ko otsailaren 25ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilaria: María Isabel García Malo

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak izendatu behar duen Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kide bat izendatzea.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko maiatzaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuak izendatu behar duen Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kide ondoko hau izendatzea:

– Balbino Bados Artiz jauna

Biltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikulua xedatutakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

**“Nafarroa 2012 Plana”, Nafarroako ekipamendu eta azpiegitura publiko-
en arloko inbertsioak 2008-2011 aldian.**

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko maiatzaren 23an egindako Osoko Bilkuran, “Nafarroa 2012 Plana”, Nafarroako ekipamendu eta azpiegitura publikoen arloko inbertsioak 2008-2011 aldian, onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 28a

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**“Nafarroa 2012 Plana”,
Nafarroako ekipamendu eta
azpiegitura publikoen arloko
inbertsioak 2008-2011 aldian**

BILDURIK

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Batetik, Miguel Sanz Sesma jauna, Nafarroako Gobernuako lehendakaria.

Eta bestetik, Elena Torres Miranda andrea, PSN-PSOE Nafarroako Alderdi Sozialistako idazkariorde nagusia.

ADIERAZTEN DUTE:

Hala Nafarroako Gobernuak, UPN eta CDN alderdiek osatua baitago, nola Nafarroako Alderdi Sozialistak, Nafarroako Foru Komunitatearen interes orokorarentzat garrantzi handikotzat hartzen diren arloetan akordioak lortzeko gogoia eta interesa dutela, alderdi bakoitzaren planteamenduak eta printzipioak errespetatuz betiere.

Hori horrela, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Alderdi Sozialistak 2007ko abenduaren 17an sinatutako hitzarmen politikoari esker, 2008ko Nafarroako Aurrekontu Orokorra onetsi zituen Nafarroako Parlamentuak.

Aurrekontuei buruzko hitzarmen hartan, bi alderdiek akordio batzuk hartu zituzten Nafarroako

Foru Komunitatearentzat gaur egun garrantzitsuak diren ekimen estrategiko batzuk abian jartzeko eta beste batzuen oinarriak finkatzeko, hori guztia erkidegoaren garapen ekonomikoa sustatzeko eta nafarren ongizatea handitzeko.

Azkeneko hilabete hauetan, Ameriketako Estatu Batuetan 2007ko udan hasi zen finantza krisitik abiatuta, hainbat gorabehera gertatu dira nazioarteko ekonomian eta, bereziki, mendebaldeko ekonomietan, eta horrek eragina izan du Espainian eta, horrenbestez, baita Nafarroan ere. Testuinguru horretan, zenbait gertakarik gero eta kezka handiagoa piztu dute herritarrengan, hurrengo hilabeteetan eta urteetan hazkunde ekonomikoa- ren tasak motelduko direlakoan.

Nazioarteko finantza merkatuen egoera horrek gure herrialdean ere eragina izan du. Horren lehenbiziko ondorioa ondasun higiezinaren sektorearen jardueraren eta aurreikuspenen jaitziera nabarmena izan da, batez ere etxebizitzaren salerosketari eta eraikuntza proiektu berriei eragin diona.

Nazioarteko eta Espainiako egoera horrek Nafarroan ere eragina du, izan ere, gaur egungo merkatu ireki eta globalizatuetan, harreman ekonomikoa estua dagoelako inguruarekin.

Nafarroako Foru Komunitatearen egoera ekonomikoa aukera ematen digu etorkizunari nola-baiteko baikortasunez begiratzeko, oinarri ekonomiko sendoak dituelako. Izan ere, 2007. urtean BPGren igoera %3,8koa izan da eta lan-jardueraren tasa ere altua da, BAI-Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera iazko abenduan langabezia tasa %4,27koa baitzen, besterik ez.

Dena dela, bai Nafarroako Gobernuak bai Nafarroako Alderdi Sozialistak uste dute 2008ko urte bukaeran, 2009. urtean eta 2010. urtean etor daitekeen egoera ekonomikoa kontuan harturik, gomendagarria eta beharrezkoa dela baliabide publiko guztiak mobilizatzea jarduera ahalbait handiena izan dadin, gaur egungo enplegu maila

bera izateko eta, ahal bada, hobetzeko eta Nafarroako Foru Komunitatearen hazkunde ekonomikoari eusten laguntzeko.

Bi aldeek, hots, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Alderdi Sozialistak aitortzen dute hala Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak nola Enpresa Sektore Publikoak inbertsio publiko handia sor dezaketela 2008-2011 aldian, eta horren ondorioz ekipamendu sozialak, etxebizitzak eta azpiegitura publiko produktiboak egin daitezkeela.

Testuinguru horretan, bi aldeek ongi dakite Espainiako Gobernuak lan handia egin dezakeela eta egin beharra duela arlo honetan. Hori dela eta, Espainiako eta Nafarroako Gobernuak elkarren eskutik lan egitea lehen mailako helburu ezinbestekoa da.

Horrexegatik prestatu da "Nafarroa 2012 Plana", Nafarroan 2008-2011 aldian egin beharreko ekipamendu eta azpiegitura publikoak garatzeko. Planak Nafarroako Gobernuaren 4.508 milioi euroko inbertsio publikoa aurreikusten du, haren enpresa sektore publikoaren eta Nafarroak estatuarekin duen lankidetzaren bidez, baita Nafarroako toki entitateen 440,5 milioi euroko inbertsioa ere.

"Nafarroa 2012 Plan" honetan mota guztietako jarduketak aurreikusi dira, esparru guztietakoak, bai ekipamendu sozialetan, bai etxebizitzaren sektorean, baita azpiegitura produktiboetan ere.

Asko dira "Nafarroa 2012 Planaren" zuzeneko helburuak, baina behinenak hauek dira: 2008-2011 aldian espero den desazelerazio faseari aurre egiten laguntzea, Nafarroako gizarteari eta, bereziki, hemengo gizarte-eragileei, hots, sindikatuei eta enpresaburuei, konfiantzazko esparru egonkor bat eskaintzea, eraikuntza sektorean gerta daitekeen enplegu galerari eraginkortasunez aurre egitea, finantza sistemari erakustea nafar ekonomiak duen inbertsio eta finantza ahalmena eta kaudimena eta, dudarik gabe, Nafarroako Foru Komunitateari azpiegitura berri ugari eskaintzea, hala azpiegitura sozialak nola produktiboak, 2012. urtearen inguruan, lehiakortasunari eta aurrerapen sozialei dagokienez, Nafarroa toki nabarmen batean egon dadin, etorkizunari arrakastaz ekin ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, bi aldeei erantzukizun politiko handia dagokienez, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Alderdi Sozialistak kontuan harturik ekonomiaren egungo egoera eta epe laburrerako aurreikusten den bilakaera, Nafarroaren eta nafarren interes orokorrari modu bateratuan lagundu nahian.

ERABAKI DUTE:

1.- "Nafarroa 2012 Plana" sustatzea. Plan horretan 2008-2011 aldian eginen diren ekipamendu eta azpiegitura publikoak jasotzen dira. Plana betetzeko 4.509,9 milioi euroko inbertsio publikoa aurreikusi da, Nafarroako Gobernuak, enpresa sektore publikoak eta Nafarroako Gobernuaren eta Estatuako Administrazio Orokorraren arteko lankidetzak ordainduko dutena. Plana agiri honekin batera sinatzen da.

"Nafarroa 2012 Planean", orobat, Nafarroako toki entitateek 2008-2011 aldian egin beharreko inbertsioa aurreikusten da, toki azpiegituren planaren kapital transferentzietatik eta udal eskumeneko ikastetxeen jarduketatik abiatuta. Hortik aurreikusitako guztirako inbertsio osagarria 440,5 milioi eurokoa da.

2.- Nafarroako Gobernuak, ahalik eta lasterren, "Nafarroa 2012 Plana" onetsiko du, Nafarroako Ekipamendu eta Azpiegitura Publikoen Plan hau ezarritako epean garatu eta gauzatzeko behar diren administrazio eta kudeaketa publikoaren arloko izapide guztiak has daitezen, bere eskumenean esparruan eta gainerako administrazioekin lankidetzan.

3.- Nafarroako Gobernuak ekintza politiko, administratibo eta teknikorako dituen baliabide guztiak abiaraziko ditu "Nafarroa 2012 Plana" osoz gauzatzeko eta horretarako, plan honetako jarduketa guztiak 2008-2011 aldian burutuko edo, gutxienez, hasiko ditu.

4.- "Nafarroa 2012 Planaren" sostengu ekonomikorako ezarritako finantziario irizpideekiko adostasuna adieraztea. Plana bere exekuzio-aldian gauza dadin ondoko baliabide ekonomiko hauek aplikatu ahalko dira:

a) Aurrekontu-baliabide arruntak, Nafarroako Aurrekontu Orokorrerako zuzeneko inbertsioen 6. kapituluak: 1.144,0 milioi euro zenbatetsi dira.

b) Aurreko ekitaldietan metatutako superabita: 343,6 milioi euro zenbatetsi dira.

c) Proiektuetarako administrazio kontzesioa: 72,3 milioi euro.

d) "Itzalpeko bidesaria" izenekoaren bidezko kontzesioa, guztira 439,7 milioi euroko inbertsioa egiteko. Horietatik 315,3 milioi euro proiektu berrietarako dira.

e) Nafarroako Gobernuaren kapital transferentzia arruntak, Nafarroako Aurrekontu Orokorrerako 7. kapituluak: 124,3 milioi euro. Eta 265,9 milioi euro, toki entitateen ekimenari eta kudeaketari dagozkienak (toki azpiegituren eta ikastetxeen plana).

f) Estatuarekiko Hitzarmenak Zentro Teknologiko berriak finantzatzeko: 56,0 milioi euro.

g) Baliabide berekiak (autofinantzaketa) eta, hala bada, Sozietate eta Fundazio Publikoen bidez hirugarrenei egindako salmenten emaitza: 627,4 milioi euro.

h) Sozietate Publikoek hitzarturiko maileguen bidezko kanpoko finantzaketa: 751,1 milioi euro. Diru hori mailegua egiten duten sozietate publikoen jardueraren bidez itzuliko da.

i) Bestelako finantzaketa-iturriak, proiektuen tipologiaren arabera: 262,2 milioi euro.

j) Estatuak Nafarroaren eta estatuaren arteko proiektuetarako Nafarroan egin beharreko aurrekontu-inbertsioak: 595,3 milioi euro.

k) Programatzeko dauden inbertsio orokorretarako 93,0 milioi euroko erreserba eta, toki entitateen eskumena izanik, programatzeko dauden jarduketetarako erreserba gisa beste 19,1 milioi euro.

5.- Aurreko atalean finantzaketarako aurreikusitako eskema zehatz hori "Nafarroa 2012 Planaren" finantzaketa iraunkorraren baldintzapean ezartzen da, hurrengo urteetako Nafarroako Aurrekontu Orokorren finantzaketa tinkatu gabe, horiek kasuan-kasuan negoziatu eta, bidezkoa bada, onetsi beharko baitira, eta, orobat, Sozietate Publikoen aktiboen desinbertsioetara jo behar izan gabe.

6.- Hitzarmen honekin batera sinatzen den agirian agertzen diren lehentasunezko 90 jarduketak lehenik egitekoak direla ezartzea. Horien zenbateko aurreikusia 3.559,7 milioi eurokoa da.

7.- Hitzarmen honekin batera doan agirian ezarritakoaren arabera, aurreko ekitaldietan metatutako superabita aplikatuz erabat edo partez finantzatu beharreko jarduketaren zerrenda egitea,

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan ongi identifikatzeko eta haien kargura finantzatzeko.

8.- Adieraztea programaturiko gainerako jarduketak (856,2 milioi euro) eta programatzeko daudenak (92,9 milioi euro) Nafarroako Gobernuak prestatuko dituen Plan Estrategikoetan lehenetsiko direla. Plan horiek Nafarroako Alderdi Sozialistarekin batera adostu beharko dira, 2007ko abenduaren 17ko Hitzarmenean ezarritakoarekin bat.

9.- "Nafarroa 2012 Planean" jarduketa gehiago sar daitezke, baliabide ekonomiko aski baldin badago, betiere hitzarmen honetako bi aldeek berariazko hitzarmena baldin badago.

"Nafarroa 2012 Planerako" baliabide ekonomikoak aurreikusitakoetatik beherakoak baldin badira, alde sinatzaileek erabaki dezakete gauzatu beharreko jarduketa kopurua murriztea edo Planaren iraunaldia luzatzea, den-denak gauzatu arte.

10.- Bi aldeek, duten erantzukizun politikoa hantzi jabeturik, konpromisoa hartzen dute erraztasunak emateko "Nafarroa 2012 Plan" hau garatu eta gauzatzeko. Zehazki, Estatuko Administrazio Orokorrekin adostasuna ahalik eta lasterren lortzeko behar diren urratsak egitea lehentasunezkoztat jotzen da Abiadura Handiko Trenaren Hitzarmena eta AHT Iruñerrian ezartzeko UPSa garatzeko hitzarmena sinatzeari begira.

11.- Hitzarmen honen ebaluazioa, kontrola eta segimendua 2008. urtean egitea aurrekontuei buruzko hitzarmenaren segimendu batzordeari dagokio, eta hurrengo urteetan, berriz, bi aldeek erabakiko duten moduan egiten da.

Eta adostasunaren adierazgarri, hitzarmen honen bi kopia sinatzen dituzte, hasieran adierazitako egunean eta tokian.

"NAFARROA 2012" PLANA			
NAFARROAKO EKIPAMENDU ETA AZPIEGITURA PUBLIKOEI BURUZKO PLANA 2008 - 2011			
	PROGRAMATURIK O INBERTSIOAK, GUZTIRA	PROGRAMATZEK O DAUDEN INBERTSIOAK	INBERTSIOAK, GUZTIRA (milaka eurotan)
PLANA, GUZTIRA	4.415.946,7	92.976,6	4.508.923,2
Toki entitateen inbertsioak	421.370,0	19.129,9	440.499,9

"NAFARROA 2012" PLANA			
NAFARROAKO EKIPAMENDU ETA AZPIEGITURA PUBLIKOEI BURUZKO PLANA 2008 - 2011			
ERAGILEA	PROGRAMATURIK O INBERTSIOAK, GUZTIRA	PROGRAMATZEK O DAUDEN INBERTSIOAK	PROGRAMATURIKO ETA PROGRAMATZEKO INBERTSIOAK,
NAFARROAKO GOBERNUKO DEPARTAMENTUAK	1.854.755,7	92.976,6	1.947.732,2
SOZINETATE PUBLIKOAK	1.348.732,0	0,0	1.348.732,0
NAFARROA-ESTATUA LANKIDETZA	1.212.459,0	0,0	1.212.459,0
GUZTIRA (milaka eurotan)	4.415.946,7	92.976,6	4.508.923,2
Nafarroako toki entitateak	421.370,0	19.129,9	440.499,9

NAFARROAKO EKIPAMENDU ETA AZPIEGITURA PUBLIKOEI BURUZKO PLANA 2008 - 2011	
FINANTZAKETA OROKORRA	milaka eurotan
Nafarroako Aurrekontu Orokorrak. 2008-2011 K.A.B.	1.144.044,1
Aurreko ekitaldietako SUPERABITen aplikazioa (A.S.A.)	343.617,9
Kontzesioa	72.303,0
Itzalpeko bidesariaren kontzesioa	439.731,0
N.G.aren kapital-transferentziak	124.273,0
Zentro teknologikoetarako hitzarmenak	56.030,7
Autofinantzaketa eta salmentak hirugarrenei	627.351,0
Kanpoko finantzaketa sozietateetan (maileguak)	751.118,0
Bestelako finantzaketa-iturriak	262.178,0
Estatuarekiko lankidetzaren ondoriozko aurrekontu-inbertsioa	595.300,0
PROGRAMATURIKO INBERTSIOAK, GUZTIRA	4.415.946,7
Programatzeko dauden inbertsioak. 2008-2011 K.A.B.	92.976,6
N.E.A.P.I. PLANA, GUZTIRA, 2008- 2011	4.508.923,2
Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	265.978,4
Toki entitateen finantzaketa	155.391,7
T. ENTITATEEK PROGRAMATURIKO INBERTSIOAK, GUZTIRA	421.370,0
Programatzeko dauden inbertsioak. 2008-2011 K.A.B.	19.129,9
TOKI ENTITATEEN JARDUKETAK, GUZTIRA	440.499,9

"NAFARROA 2012" PLANA			
NAFARROAKO EKIPAMENDU ETA AZPIEGITURA PUBLIKOEI BURUZKO PLANA			
2008 - 2011			
FINANTZAKETA OROKORRA	milaka eurotan	XEHETASUNA	milaka eurotan
Nafarroako Aurrekontu Orokorrak. 2008-2011 K.A.B.	1.144.044,1		1.144.044,1
Aurreko ekitaldietako SUPERABITen aplikazioa	343.617,9	Segurtasunaren Hiria	5.000,0
		Iruñeko Justizia Jauregia handitzea	8.525,0
		Lekarozko Zentro Funtzioaniztuna	12.000,0
		Musikaren Hiria	37.665,6
		Medikuntzako Gune Teknologikoa	49.031,6
		Nafarroako Ospitaleko Ikerketa Biomedikorako Zentroa	22.413,0
		Erroko eta Mezkirizko tunelak (%50)	40.000,0
		Nafarroako Kiroldegia	60.000,0
		Ezgaitasunak dituztenentzako zentroa Sarrigurenen	14.873,8
		Adimen Osasuneko Egoitza Sarrigurenen	4.665,6
		Adimen Osasuneko Egoitza Iruñean	3.165,0
		Lizarrako Oncineda handitu eta eraberritzea	3.778,3
		Entzieroari eta sanferminei buruzko museoa (Iruñearekin hitzarmena, %80)	20.000,0
		Iruñeko Ziadela kanpo aldetik zaharberritzea	6.000,0
		Erromesendako aterpea Orreagan	5.000,0
		Fiteroko monasterioa (I)	1.500,0
		Pirinioko Plana. Berariazko jarduketak	10.000,0
		Errepideetarako azkartze plana	40.000,0
Kontzesioa	72.303,0	Segurtasunaren Hiria	35.000,0
		Aireportuaren Hiria	37.303,0
Itzalpeko bidesariaren kontzesioa	439.731,0	A-21 Judasen Benta-Esa	117.000,0
		A-21 Esa-Probintziaren muga	113.260,0
		Eremu ureztagarria: Lizarrerria	85.000,0
		Nafarroako ubidearen eremu ureztagarria 1. fasea	124.471,0
N.G.aren kapital-transferentziak	124.273,0	Iruñeko Garraioaren Hiria, S.A.	5.000,0
		N.I.L.S.A. (NAFARROAKO TOKI AZPIEGITURAK, S.A.)	14.725,0
		Nafarroako Ureztalurrak, S.A	77.400,0
		Nafarroako Ubidea, S.A	27.148,0
Zentro Teknologikoetarako hitzarmenak Estatuarekin	56.030,7	Irudi Medikoaren Zentro Teknologikoa ZTGB	18.710,7
		ZTGB 2. Belaunaldiko Bioerregaien Zentro Nazionala	33.000,0
		Irudi Grafikoaren Lizarrako Zentro Teknologikoa	4.320,0

FINANTZAKETA OROKORRA	milaka eurotan	XEHETASUNA	milaka eurotan
Autofinantzaketa (eta salmentak hirugarrenei)	627.351,0	Urbanizazioa eta Eraikinak Tuterako Plataforma Logistikoan (I)	47.200,0
		Urbanizazioa eta Eraikinak beste Plataforma Logistikoetan (I)	23.800,0
		Iruñeko Garraioaren Hiria, S.A. 3. fasea eta 4. fasea (I)	89.278,0
		Ondare historiko-artistikoaren fundazioa	10.235,0
		Mintegiak eta Basoberritzeak, S.A.	300,0
		Natural Climaste Systems, S.A. MIYABI	8.049,0
		NASUINSA	56.583,0
		NASURSA	4.275,0
		SODENA	3.300,0
		SPRIN, S.A (Nafarroako Inbertsio eta Azpiegituren Sustapena, S.A.)	246.079,0
		TRACASA	4.947,0
		VINSA	64.818,0
Nafarroako Ubidea, S.A	68.487,0		
Kanpoko finantzaketa sozietateetan (maileguak)	751.118,0	Iruñeko Garraioaren Hiria, S.A.	8.500,0
		Natural Climaste Systems, S.A. MIYABI	20.417,0
		NASUINSA	118.419,0
		Nafarroako Ureztalurrak, S.A	44.333,0
		SPRIN, S.A (Nafarroako Inbertsio eta Azpiegituren Sustapena, S.A.)	71.631,0
		TRACASA	8.000,0
		VINSA	194.194,0
		Nafarroako Ubidea, S.A	285.624,0
Bestelako finantzaketa-iturriak	262.178,0	Natural Climate Systems, S.A. MIYABI	8.647,0
		N.I.L.S.A. (NAFARROAKO TOKI AZPIEGITURAK, S.A.)	3.681,0
		NASURSA	6.800,0
		SPRIN, S.A (Nafarroako Inbertsio eta Azpiegituren Sustapena, S.A.)	7.150,0
		Iruñerriko Abiadura Handiaren UPSa. Partzuergoa	130.000,0
		Iruñerriko Abiadura Handiaren UPSa. TAA	105.900,0
Estatuarekiko lankidetzaren ondoriozko aurrekontu-inbertsioa	595.300,0	AHT Nafarroako Gobernua	379.000,0
		AHT Sustapen Ministerioa	216.300,0
PROGRAMATURIKO INBERTSIOAK, GUZTIRA	4.415.946,7		4.415.946,7
Programatzeko dauden inbertsioak. 2008-2011 K.A.B.	92.978,8		92.978,8
"NAFARROA 2012" PLANA GUZTIRA	4.508.923,2		4.508.923,2
T. ENTITATEEK PROGRAMATURIKO INBERTSIOAK, GUZTIRA			421.370,0
Programatzeko dauden inbertsioak. 2008-2011 K.A.B.			19.129,9
TOKI ENTITATEEN JARDUKETAK, GUZTIRA			440.499,9

"NAFARROA 2012" PLANA		
NAFARROAKO EKIPAMENDU ETA AZPIEGITURA PUBLIKOEI BURUZKO PLANA 2008 - 2011		
GARRANTZI HANDIENeko 90 JARDUKETAK		
GARRANTZI HANDIENeko 90 JARDUKETAK GUZTIRA		3.559.740,6
Programaturiko gainerako jarduketak		856.206,1
Programatzeko dauden jarduketak		92.976,6
"NAFARROA 2012" PLANA 2008 - 2011 GUZTIRA		4.508.923,2
EKIPAMENDUAK EZGAIT. DITUZTENENTZAT ETA ADINGABEENTZAT	Ezgaitasunak dituztenentzako zentro berria Sarrigurenen	14.874,0
	Lizarrako San Domingoko zahar-etxea	8.585,0
	Adimen osasuneko egoitza Sarrigurenen	4.666,0
	Adimen osasuneko egoitza Iruñean	3.165,0
	Adimen osasuneko egoitza Tuteran	2.942,0
	Adimen osasuneko egoitza Lizarran	2.817,0
	Ezgaitasunak dituztenentzako Oncineda zentroa eraberritzea. Lizarra	3.778,3
	Adingabekoentzako zentroa Ilundainen	5.369,0
OSASUN LAGUNTZAKO ETXEAK ETA OSPITALEAK	Nafarroako Medikuntzako Gune Teknologikoa	49.031,6
	Nafarroako "C" Pabilioia birmoldatzea	29.972,0
	Bideko Ama Birjinako kirurgia guneak birmoldatzea (I)	21.400,0
	Nafarroako Ospitaleko larrialdietarako eraikina	19.727,0
	Ubarmin klinikako kirurgia guneak birmoldatzea	11.527,0
	Osasun barrutietako kirurgia guneak birmoldatzea	10.650,0
	Zentro Psikogeriatricorako plan zuzentzailea	9.200,0
	Ama-haurren ospitaleko larrialdietarako birmoldatzea	8.600,0
	Osasun etxeak handitzeko plana	8.154,0
HEZKUNTZA	MUSIKAREN HIRIA. Kontserbatorioa	37.666,0
	Bigarren Hezkuntzako Institutuak handitzea eta berriak egitea	20.000,0
	Ikastetxe plana	19.769,0
	Lekarozko Zentro Funtzioaniztuna	12.000,0


ZENTRO TEKNOLOGIKOAK ETA IKERKETA APLIKATUKOAK	Nafarroako Ospitaleko ikerketa zentro berria	22.413,0
	2. Belaunaldiko Bioerregaien Zentro Nazionala. Agoizko ZTGB	12.000,0
	Irudi Medikoaren Zentro Teknologikoa. ZTGB	18.710,7
	Irudi Grafikoaren Lizarrako Zentro Teknologikoa	4.320,0
	IKTen HIRIA. El Garitón-NUP	13.750,0
	Lurreko telebista digitalerako azpiegituren plana	8.188,0
	Telekomunikazioei buruzko epe luzerako plana	5.350,0
	Berrikuntzaren kuboak Sarrigurenen	13.745,0
	110 etxebizitza domotiko-bioklimatikoren sustapena	23.368,0
	TRACASaren eraikin nagusia	12.947,0
KULTURA eta AISIA	Nafarroako liburutegia eta zinemateka	20.000,0
	Liburutegi eta artxiboetarako inbertsio plana	14.633,0
	Nafarroako Kiroldegia	60.000,0
	Entzierroari eta sanferminei buruzko museoa (Iruñearekin hitz. %80)	20.000,0
	Los Arcosko abiadura handiko zirkuitua (sozietatean)	32.500,0
	Erronkaribarko Ipar Eskiko Zentroa	1.361,0
ONDARE HISTORIKO-ARTISTIKOAREN BERRESKURAPENA	Martzillako Gaztelua	8.915,0
	Fiteroko Monasterioa zaharberritzea	5.250,0
	Lizarrako San Pedro eliza lehengoratzea	5.000,0
	Iruñeko Zidadela kanpo aldetik zaharberritzea	6.000,0
	Erromesendako aterpea Orreagan	5.495,0
	Uxueko Andre Maria. Abate etxea, barnealdea eta 4. fasea	2.895,0
	Iruñeko Katedralaren pinakuluak eta kanpoaldeko argiak	3.000,0
	Rozalejoko markesaren jauregia zaharberritzea	12.000,0
	Donejakue Bidearen Nafarroako tartea moldatzeko plana	2.000,0

ADMINISTRAZIOAREN ERAIKINAK	SEGURTASUNAREN HIRIA (I)	40.000,0
	Epaitegien eraikin berria Tuteran	10.960,0
	Epaitegien eraikin berria Lizarran	8.638,0
	Iruñeko Justizia Jauregia handitzea	8.525,0
	Polizia etxea berria Elizondon	1.000,0
	Administrazioaren eraikin berria González Tablas kalean	15.889,0
	Mendillorriko jauregia. SODENA (Nafarroako Garapen Sozietatea, S.A.)	3.300,0
	Ogasunerako eraikin berria-Erredentziotarrak	6.982,0
ETXEBIZITZA	NAFARROAN ETXEBIZITZA BABESTUA BULTZATZEKO PLANA. BABES OFIZIALEKO 15.000 ETXEBIZITZAREN ERAIKUNTZA. (2.500 etxebizitza VINSAk zuzenean sustaturik)	259.012,0
3.300.000 M² INDUSTRIALDETAN	Izarbeibarko industrialdea	27.916,0
	Elortzibarko industrialdea	20.271,0
	Urdiaingo industrialdea	17.370,0
	Noaingo industrialdea (Posusa zena)	13.289,0
	Lodosako industrialdea	9.097,0
	Cortesko industrialdea	6.008,0
	Zangozako Rocaforteko industrialdea. Handitzea	4.971,0
	Irunberriko industrialdea	2.466,0
	Artaxoako industrialdea	1.429,0
	Deikazteluko industrialdea	1.224,0
INGURUMENA ETA LURR. ANTOLAMENDU	Nafarroako ibaiak saneatzeko plana	18.406,0
	Ibai bazter eta ibilguak lehengoratzea	5.000,0
	Pirinioko Plana. Berariazko jarduketak	10.000,0
	Oihangintzako azpiegiturak Pirinioan	4.000,0

NEKAZARITZA-INDUSTRIA ETA UREZTALURRAK	Nafarroako Ubidea	381.259,0
	Nafarroako Ubidearen ureztalurrak 1. fasea	124.471,0
	Lurzatian instalatzea Nafarroako Ubideko I. sektoretik X.eraio	53.250,0
	Lizarrerriko ureztalurren eremu berria	85.000,0
	Tuterako Nekazaritzako Elikagaien Hiria	79.555,0
	Valtierrako ureztalur tradizionalen modernizazioa	16.000,0
	Ablitasko ureztalur tradizionalen modernizazioa	10.534,0
	Faltzesko ureztalur tradizionalen modernizazioa	12.800,0
	Cortesko ureztalur tradizionalen modernizazioa	19.882,0
ERREPIDE SAREA	Errepideetarako azkartze plana . 29 jarduketa	260.000,0
	Pirinioetako A-21 autobia Judasen Benta-Esa	117.000,0
	Pirinioetako A-21 autobia Esa-Nafarroako muga	113.260,0
	Erroko eta Mezkirizko tunelak	80.000,0
	Donejakue Bideko A-12 autobia Logroñorekiko lotura	20.962,0
	A-15 autobia Medinaceli-Soria-Tutera. Tutera-Nafarroako muga tartea (I)	10.000,0
ABIADURA HANDIKO TRENA	Abiadura Handiko Trena. Nafarroako Gobernua	379.000,0
	Abiadura Handiko Trena. Sustapen Ministerioa	216.300,0
	Iruñerriko Abiadura Handiaren UPSa. Partzuergoa	130.000,0
	Iruñerriko Abiadura Handiaren UPSa. TAA	105.900,0
EREMU LOGISTIKOAK	Iruñeko Garraioaren Hiria 3. fasea	96.778,0
	Iruñeko Garraioaren Hiria 4. fasea	6.000,0
	Tuterako eremu logistikoa (I)	47.200,0
	Nafarroako beste eremu logistiko batzuk (I)	23.800,0
	AIREPORTUAREN HIRIA	37.303,0
"NAFARROA 2012" PLANEKO GARRANTZI		3.559.740,6
TOKI ENTITATEAK	TOKI AZPIEGITUREI BURUZKO PLANA	319.988,5
	UDAL IKASTETXEETAKO JARDUKETAK	101.381,5
TOKI ENTITATEAK. Programatutako jarduketak		421.370,0

NAFARROAKO EKIPAMENDU ETA AZPIEGITURA PUBLIKOEI BURUZKO PLANA 2008-2011

DEPARTAMENTUA	PROFESIONARIKO INBERTSIOK	BESTE INBERTSIOK BAZUK	INBERTSIOK GUZTIRA	2008-2011 K.A.B.	A. S. A.	KONTZESIA	ITZALPERO BIDEARAREN KONTZESIA	ZENTRO TEKNOLOGIKETARAKO INVERTIMENAK	FINANTZAKETA				PROGRAMATIBURKO INBERTSIOK GUZTIRA	PROGRAMAZIOKO INBERTSIOK	PROGRAMAZIOKO INBERTSIOK GUZTIRA
									ITZALPERO BIDEARAREN KONTZESIA	ITZALPERO BIDEARAREN KONTZESIA	ITZALPERO BIDEARAREN KONTZESIA	ITZALPERO BIDEARAREN KONTZESIA			
LEHENDAKARITZA	170.927,7	0,0	170.927,7	101.420,8	13.525,0	36.000,0							149.045,8	9.288,8	158.234,6
EKONOMIA ETA OGASUNA	130.252,4	12.000,0	142.252,4	101.854,7	12.000,0	0,0							113.854,7	9.014,7	122.869,4
TOKI ADMINISTRAZIOA	4.287,6	0,0	4.287,6	4.108,4	0,0	0,0							4.108,4	331,5	4.439,9
L.A. ETA ETXEBIZITZA	93.847,0	0,0	93.847,0	87.854,0	0,0	0,0							87.854,0	6.966,6	94.810,6
HEZKUNTZA	132.593,7	0,0	132.593,7	73.252,2	37.866,8	0,0							110.917,8	5.892,9	116.810,7
OGASUNA	321.023,6	31.349,3	352.372,9	160.824,1	71.444,8	0,0		18.710,7					280.779,4	15.693,4	296.442,8
HERRI LAN ETA GARRAIOAK	908.338,0	147.000,0	1.055.338,0	336.549,1	40.000,0	37.303,0	330.280,0	0,0	71.000,0				715.112,1	28.013,0	743.125,1
LANDA GARAP. ETA INGURUMENA	79.022,7	0,0	79.022,7	73.276,1	0,0	0,0							73.276,1	5.746,6	79.022,7
BERRIK., ENPRESA ETA ENPLEGUA	42.998,3	37.320,0	80.318,3	38.150,2	0,0	0,0		37.320,0					76.478,2	3.077,9	79.556,1
GIZARTE GAIAK	159.191,7	0,0	159.191,7	58.559,1	86.482,7	0,0							143.041,8	4.723,2	147.765,0
KULTURA ETA TURISMOA	81.472,0	42.000,0	123.472,0	77.909,7	20.000,0	0,0							97.909,7	6.087,9	103.978,6
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK	1.890,4	0,0	1.890,4	2.480,6	0,0	0,0							2.480,6	200,1	2.680,7
	2.105.905,1	269.699,3	2.375.604,4	1.144.044,1	281.117,9	72.303,0	230.280,0	56.030,7	71.000,0	0,0	0,0	0,0	1.854.755,7	92.978,8	1.947.732,2
SOZIALTE PUBLIKOAK															
CTP, SA	102.778,0	0,0	102.778,0		0,0	0,0		89.275,0		6.000,0			102.778,0	0,0	102.778,0
ONDAREAREN FUNDAZIOA	16.735,0	6.000,0	22.735,0		12.900,0	0,0		10.235,0		0,0			22.735,0	0,0	22.735,0
MINTEGIAK	300,0	0,0	300,0		0,0	0,0		300,0		0,0			300,0	0,0	300,0
NIYABI	37.113,0	0,0	37.113,0		0,0	0,0		8.049,0		0,0			37.113,0	0,0	37.113,0
NILSA	18.406,0	0,0	18.406,0		0,0	0,0		0,0		14.725,0			18.406,0	0,0	18.406,0
NASUJNSA	175.002,0	0,0	175.002,0		0,0	0,0		56.993,0		0,0			175.002,0	0,0	175.002,0
NASURSA	11.075,0	10.000,0	21.075,0		10.000,0	0,0		4.275,0		0,0			21.075,0	0,0	21.075,0
NAFARROAKO UREZTALURRAK	121.733,0	86.000,0	207.733,0		0,0	0,0		0,0		77.400,0			207.733,0	0,0	207.733,0
UBIDEAREN UREZTALURRAK	124.471,0	0,0	124.471,0		0,0	0,0		0,0		0,0			124.471,0	0,0	124.471,0
SODENA	3.300,0	0,0	3.300,0		0,0	0,0		3.300,0		0,0			3.300,0	0,0	3.300,0
SPRIN	109.890,0	255.000,0	364.890,0		40.000,0	0,0		246.079,0		0,0			364.890,0	0,0	364.890,0
TRACASA	12.947,0	0,0	12.947,0		0,0	0,0		4.947,0		0,0			12.947,0	0,0	12.947,0
VINSA	259.012,0	0,0	259.012,0		0,0	0,0		64.818,0		0,0			259.012,0	0,0	259.012,0
	892.732,0	359.000,0	1.251.732,0	0,0	82.500,0	0,0	209.471,0	0,0	487.894,0	97.125,0	465.494,0	26.278,0	1.348.732,0	0,0	1.348.732,0
NAFARROA-ESTATUA LANKIDETZA															
NAFARROAKO UBIDEA	381.259,0	0,0	381.259,0		0,0	0,0		69.487,0		27.148,0			381.259,0	0,0	381.259,0
AHT NAF. GOBERNUA	379.000,0	0,0	379.000,0		0,0	0,0		0,0		0,0			379.000,0	0,0	379.000,0
AHT SUSTAPEN MIN.	216.300,0	0,0	216.300,0		0,0	0,0		0,0		0,0			216.300,0	0,0	216.300,0
AHren UPSa, Partzuergoa	130.000,0	0,0	130.000,0		0,0	0,0		0,0		0,0			130.000,0	0,0	130.000,0
AHren UPSa, TAA	105.900,0	0,0	105.900,0		0,0	0,0		0,0		0,0			105.900,0	0,0	105.900,0
	1.212.459,0	0,0	1.212.459,0	0,0	0,0	0,0	0,0	69.487,0	27.148,0	285.624,0	26.278,0	595.300,0	1.212.459,0	0,0	1.212.459,0
2008-2011 PLANA GUZTIRA	4.311.096,1	625.669,3	4.936.765,4	1.144.044,1	343.817,9	72.303,0	439.731,0	56.030,7	627.351,0	124.273,0	751.118,0	262.178,0	4.415.946,7	92.976,6	4.508.923,2



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	